

ARANBURU'TAR FRANZISKO (Misiolaria)

ARGI MUTILLAK

"Zuek zaree munduarentzat argia. Eta argia ez da biztuten otzara-pean ipinteko, argi mutillaren gañean baño, etxeko guztiai argi egin dagitsen" (Mat.5,14).

Kristo gure Jauna da, egiaz, munduko argia, eta gu bere argi-mutillak, batez be mundu zabalera doazan mixiolariak.

Peru'ko uri, erri, baso eta mendietan ugari izan doguz eusko mixiolariak. danak jokatu dabe leialtsu Kristo'ren Barri Ona zabaltzen ,eta giza biotzetan bere sinismenaren argia biztuten. Baña, batzuk, nork ukatu?, gorengo maillan ipiñi dabe euren izen ona, Kristo'ren, elizaren eta aberriaren alde arrigarrizko egiteak egiñaz.

Miila Batres idazlariak idaz-lan ederra argitaratu dau emen, izenburu onegaz: "Diccionario Historico y Bibliografico del Peru". Bederatzi liburu mardul dituzu, eta eusko abizenak orrialde askotan agertzen dira. Arritzekoa da ainbeste euskeldunen izen eta abizen Peru'ko Kondairan ikustea.

Liburu onetatik artu gura dodaz eusko mixiolari ospetsuen izenak eta egintza goragarriak; eta illero ZER albiztarian argitaratu. Benetako arti-mutillak dituzu Kristo'ren Barri Ona ots egiten, eta aberriaren alde jokutzen.

ARANBURU'TAR FRANZIZKO

"Gizaldi ontan franzizkotar mixiolaririk ospetsuena izan da. Lima uriburruan bizi izan arren, Peru'ko erri askotan Kristo eta gure aberriaren alde eten barik jokatu eban". (Miila Batres).

Kortezubi erri txiki eta ederrak makiña bat seme-alaba jatorrak emon dautsoz aberriari eta elizari. Erri ontan jaioa dogu Franzizko. (1870, otsailak 27).

"Gazte gaztetatikan erritik kanpora". Loretxu erne barria bere azi tokitik lur gorrira eroaten dan legez, alantxe Franzizko gaztea Peru'ra ekarria izan da amabost urte dituala, beste ogetabost lagunekin, aita Lukas Garteiz'en ardurapean. Amasei urte bete

AITA ZENON PASIOTARRARI ESKER ONA

Peru'n ainbeste urte egin ondoren, barriro gure artera etorri jakun aita Zenon pasiotarra, adiskide ona ta antxiñakoa.

Eta urteak urte an egin izan arren, zelako maitasun beroa ekarri dauan gure izkuntzari begira. Eta ez maitasun utsa, egitez beterikoa baño.

Gogotsu ta arduratsu izan dogu kideko Euskerazaleak Alkartea'k 25n. urtea ospatzeko egin dauzan eginkizuntan, eta bein eta barriro idazten dau gure aldizkarian.

Eskerrik asko Zenon Aita!

Orain barriro joan da Peru'ra bere misiolari-lana jarraitzeko, baiña aindik be Zer'erako idaz-lanak ugari bialtzen dauz eta askotariko laguntza emoten dauku.

Irakurleak errez ikusi daikeen lez, Zenon aitaren euskerea oso jatorra ta aberatsa da eta bere lanak artzen jarraituko dogula itxaroten dogu.

Ba-dakigu bere lan nagusia zein dan: Pasiotarrak Lima'na dauke Pilar'eko Andra Maria'ren Parroki aundia dauka bere ardurapean. Bere ardura au ondo bete dagian goi-eskar eta laguntza eskatzen dautsaguz, Barri Ona zabaltzeko ardurea emon euskun Jesus Salbatzailleari.

Peru'ko lurralde areik ba-dauke gure laguntzaren bear-izana, aberastasun aundiak dituan lurraldea izan arren, aurrerapenean bidea artu-eziñik dagoalako.

Ekin, Zenon adiskide ta lankide, pasioatarren Bazkunaren bidean eleizeak emon dautzun ardura orreri.

ZER